

Enpresen lehiakortasuna eta hobekuntza proiektu lagunduak egiteko ASMAOLA deialdia

Makina-Erreminta Formaziorako Fundazioak (IMH Campus aurrerantzean), Elgoibarko Udalaren lankidetzan, Elgoibarren egoitza duten enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzea ekarriko duten proiektu teknologikoak laguntzeko deialdia egiten du. Besteak beste, proiektuaren helburuak ondorengo ekintzetan oinarrituko dira:

- Berrikuntza erradikala
- Produktu edo/eta prozesuen berrikuntza
- Ekoizpen errendimenduen hobekuntza

Deialdira aurkeztu eta laguntza jaso nahi duten enpresek oinarri hauek bete behar dituzte:

- I. ETE enpresa izan behar da (gehienez 250 langile).
- II. Enpresa batek baino gehiagok egindako proiektu komuna bada, enpresa bakoitzak eskaera bana egin beharko du, eta horretan adierazi zein enpresarekin batera aurkezten duen proiektu komuna.
- III. Egitasmoak hiru motatakoak izan daitezke: Berrikuntza erradikala, produktuak eta prozesuak berritzea eta ekoizpen-errendimenduen hobekuntza.
- IV. Diruz lagundu daitezkeen gastuak, IMH Campus-eko teknikari eta aholkularien orduak izango dira.
- V. Eskaera aurkezteko epea **2025ko otsailaren 7an** amaituko da. Eskaerak posta elektronikoz igorriko dira imh@imh.eus helbide elektronikora.
- VI. Proiektuak onartzeko eta onartuak jakinarazteko gehieneko epea **2025ko martxoaren 21a** izango da.
- VII. Eskaerak dokumentazio hau bildu behar dute:
 - Egitasmoaren helburua aditzera ematen duen txostena (dokumentu honetan).
 - Nortasun juridikoa egiaztatze dokumentua: NAN edo IFZ.
 - Egitasmoaren xede den jarduerarako beste diru-laguntzaren bat eskatu edo eskuratu baldin bada, beste diru-laguntza horiei buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- VIII. Lagunduko den aurrekontu muga %70ekoa izango da, beti ere 7.000 euroko mugarekin.
- IX. Enpresa bakoitzak proiektu teknologiko bakarra aurkez dezake, ez gehiago.
- X. Enpresa batek baino gehiagok egindako proiektu bateratua bada, enpresa bakoitzak bere eskaera egin beharko du, eta eskaeran bertan adierazi zein enpresarekin aurkezten duen proiektu bateratua.
- XI. Eskaera aurkeztean, eskaera egiten duenak adierazten du, eskaeran jasotako datu pertsonalak bere baietzarekin jaso direla eta onartu egiten duela datu horiei tratamendu automatizatua

ematea eta IMH Campus-enak diren eta behar bezala baimenduta dauden fitxategietan jasotzea;
eta baimena ematen du datu horien erabilera soil-soilik deialdi honen kudeaketara mugatzeko.

EGITASMOAREN TXOSTENA

Enpresa:

IFZ:

Egitasmoaren helburua

Enpresa arduradunaren sinadura eta enpresa zigilua

Izen abizenak:

Postua:

Data: